



ARTIBAKO PRESAREN, OIOLAKO PRESAREN ETA BUSTURIKO EUT-AREN ERABERRITZE ELEKTRIKOKO ETA BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIOEN KONTROLEKO OBRA-ZUZENDARITZARI LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO ZERBITZUA

3. dokumentua Preskripzio Tekniko Partikularren Agiria

1. XEDEA

Preskripzio Tekniko Partikularren Agiri (PTPA) honen xedea da ARTIBAKO PRESAREN, OIOLAKO PRESAREN ETA BUSTURIKO EUT-AREN ERABERRITZE ELEKTRIKOKO ETA BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIOEN KONTROLEKO OBRA-ZUZENDARITZARI LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO ZERBITZUA gauzatzeko gida gisa erabiliko diren kondizio teknikoak definitzea.

2. DESKRIBAPEN OROKORRA

BBUPek behe-tentsioko instalazio elektrikoak dituzten kokaleku ugari kudeatzen ditu. Instalazio horiek operatibo egon behar dute, eta, gainera, indarrean den araudia bete behar dute. Mantentze-lanen eta aldian-aldian egiten diren legezko ikuskapenen ondorioz, antzeman da zenbait jarduketa egin behar direla instalazioak erabilgarri daudela eta araudia betetzen dutela bermatzeko.

2023an, BBUPek Artibako eta Oioloako presen eraberritze elektrikorako eta kontrolerako proiektuen idazketa kontratatu zuen. Busturiko EUTaren eraberritze elektrikorako proiektua idatzi da, hura behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikora egokitzeko.

Agiri honen xedea zera da, Ur Partzuergoko teknikariez osatutako Obra Zuzendaritzaren agindupean, Obraren exekuzioa zuzendu, kontrolatu eta zaintzeko giza baliabideen eta baliabide materialen koadroa osatuko duen Laguntza Teknikoaren kontratazioa arautuko duten kondizio teknikoak finkatzea:

- ARTIBAKO PRESAREN, OIOLAKO PRESAREN ETA BUSTURIKO EUT-AREN ERABERRITZE ELEKTRIKOKO ETA BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIOEN KONTROLEKO OBRA

3. ZERBITZUAREN IRISMENA

3.1 ZERBITZUAREN IRISMENA

Espediente honen obra-zuzendaritzari laguntza tekniko ematea da kontratu honen irismena: "ARTIBAKO PRESAREN, OIOLAKO PRESAREN ETA BUSTURIKO EUT-AREN ERABERRITZE ELEKTRIKOKO ETA BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIOEN KONTROLEKO OBRA, EUROPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIARAKO MEKANISMOAREN FUNTSEKIN FINANTZATUA, ZEHAZKI, «ITSASERTZA ETA BALIABIDE HIDRIKOAK ZAINTEA» 5. OSAGAIAREN «TRANTSIZIO DIGITALA URAREN SEKTOREAN (INGURUMEN-ENFORCEMENT DIGITALA)» 3. INBERTSIOAREN ESPARRUAN"

Dokumentazioa I. ERANSKINEAN erantsi da.

3.2. PREMIA-PLANA

Exekuzio- eta abiarazte-faseetan obra-zuzendaritzari –BBUPeko teknikariez osatutakoari– laguntza tekniko emateko zerbitzuak emateko eskatzen zaio, bai eta obra-exekuzioko enpresa kontratistak aurkeztu beharreko legezko dokumentazioa eta *asbuilt* dokumentazioa berrikusteko ere.

Agiri honen irizpide orokor gisa ulertuko da adjudikaziodunaren jarduna mugatuko dela Obra Zuzendaritzari aholkuak ematera eta hari obrari buruzko datuak lortzen laguntzera, eta ezin izango dela haren edo haren langileen esku utzi Obra Zuzendaritzari dagozkion erabaki-ahalmenetako bat bera ere.

Antzeko lanak gauzatzen esperientzia frogagarria duen giza talde baten parte-hartzea eskatzen da. Kontratu-exekuzioari esleitutako arduradunen prestakuntza akademikoa eta profesionala barne hartuko da. Obrari atxikitako langileei eskatzen zaizkien ezaugarri teknikoak eta profesionalak honako hauek dira:



- Industria-ingeniari tekniko bat (espezialitate elektrikoa), 5 urtetik gorako esperientzia profesionala duena ekipoak eta instalazioak zuzentzen, ikuskatzen eta kontrolatzen.
- Goi-mailako industria-ingeniari tekniko bat, 5 urtetik gorako esperientzia profesionala duena proiektuak zuzentzen eta ekipoak eta instalazioak ikuskatzen eta kontrolatzen.
- Eskema elektrikoetan esperientzia duen delineatzailea

3.1.1 LAGUNTZA TEKNIKOAREN LAN-ARLOAK ETA FUNTZIOAK

Hemen deskribatzen dira exekuzioa zuzentzearen edo ikuskatzearen arloan bete beharreko funtzioak.

3.1.1.1 AZTERLANAK, ANALISIAK, TXOSTENAK ETA PRESTAZIOAK

Hauek dira arlo honetan gauzatu ahalko diren funtzio espezifikoak:

- Laguntza teknikoko lanak egiteko moduari buruzko aurretiazko plangintza eta metodologia orokorra.
- Obraren proiektua eta haren geroagoko aldaketak (halakorik egonez gero) aztertu eta berrikustea, baita eskura dauden datu eta aurrekari oro eta kontratista adjudikaziodunaren eskaintza ere.
- Adjudikazioaren ondoren, kontratistak aurkeztu beharreko Lanen Plana berrikustea.
- Erabili beharreko makineria eta baliabide gehigarrien berrikuspena.
- Behin betiko onartutako Lanen Planaren kontrola eta jarraipena egitea.
- Kontratistak kontratuaren kondizioak betetzen dituela gainbegiratzea eta kontrolatzea.
- Obra agiriei, jatorrizko proiektuari eta behar bezala baimendutako aldaketei jarraikiz gauzatzen dela ikuskatzea eta kontrolatzea.
- Agiriei obra-zuzendaritzaren irizpidearen mende uzten dituzten kondizio eta alderdi teknikoak zehaztea.
- Nola plano-interpretazioari hala obra-unitateen material- eta exekuzio-kondizioei dagokienez sortu litezkeen alderdi tekniko guztiak zehaztea, betiere kontratu-kondizioak aldatu gabe.
- Operazioak gainbegiratzea eta kontrolatzea.
- Obran materialak jasotzea
- Gorabehera tekniko edo ekonomiko posibleak aurreikustea eta soluzioei buruzko txostena egitea.
- Obraren jarraipen ekonomikoa eta horren inguruko txostenak egitea.
- Obran sortutako arazoei buruzko proposamenak aztertzea, baldin eta Kontratua behar bezala betetzea eragozten badute edo Kontratua aldatzea gomendatzen badute.
- Urgentziako edo larritasuneko kasuetan, hasitako operazioak edo lanak zuzentzen Obra Zuzendaritzarekin lankidetzan jardutea, eta horretarako beharrezkoak diren bitartekoak eskatzea kontratistari.
- Kontratistak aurkeztu beharreko Kalitatea Bermatzeko Programa berrikustea eta kontrolatzea.
- Kontratuarekin hornitutako ekipoen bermeen azken egoera.
- Bilera guztietako aktak egitea.
- Obran zehar egin beharreko argazki-erreportajeak.

3.1.1.2 EKIPAMENDU ETA INSTALAZIOAK KONTROLATU ETA IKUSKATZEA

Adjudikaziodunak hileroko egikaritutako obrak kontrolatu eta baloratzeko Obra Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzeko beharrezkoak diren operazio guztiak egingo ditu, fase hauen arabera:

- Exekutututako obraren hileko neurketak, proiektuko unitate bakoitzaren arabera, baita planoa ere.
- Kontratistak egindako hileko ziurtagirien zerrenda baloratuak berrikustea.
- Aurrekontua eta ziurtagiriak kontrolatzea.
- Egindako obraren eta programatutako obraren grafiko konparatiboak egitea eta eguneratzea, eta Obra Zuzendaritzari edozein anomalia garrantzitsuren berri ematea.
- Ezustekoak baloratzea.
- Prezio kontrajarrien proposamenak egitea, kontratistarekin eztabaidatzeko.
- Obraren amaierako memoria ekonomikoa egitea.
- Neurketa eta balorazioa, jatorrian, eta obra zati bakoitzaren azken likidazioa, eta guztizkoa.
- Kontrol eta jarraipen ekonomikoa eta epeena. Obren zati bakoitzaren desbiderapena, bai eta guztiena batera ere.

Ataza hauek egingo ditu adjudikaziodunak:

- a) Exekutututako obrari dagozkion materialen, ekipoen eta instalazioen kalitate-kontrola.
- b) Exekuzioa zaintzea.



Obrak egikaritzen diren bitartean, adjudikaziodunak obrak egiteko prozesu osoa zainduko du.

Adjudikaziodunaren langileek beti eskatuko dute kondizio-agirietan ezarritakoa betetzea, exekuzio-sistemari dagokionez. Operazioen bat aipatutako agirietan zehaztuta ez badago, dago(z)kion klausula gehigarria(k) sartzea proposatuko dio Obra Zuzendaritzari.

Lanen martxari eta kalitateari buruzko parteak edo txostenak idatziko ditu hilean behin adjudikaziodunak; halaber, lan horiek onetsitako Lanen Planera, ezarritako kalitate-mailara nola egokitzen diren ere jasoko du.

Lan-erritmoa gelditu eta nabarmen jaisten bada, adjudikaziodunak kontratistaren arrazoiak eta erantzukizuna adieraziko ditu dagokion txostenean.

Berdin jokatu du obregatik edo beste kontingentzia garrantzitsu batengatik hirugarrenei kalteak eragiten bazaizkie.

Exekuzioa zaintzean honako hauei erreparatuko zaie bereziki:

- Obran sartzea gainbegiratzea eta kontrolatzea.
- Elementu mekanikoen, ekipamenduen (ponpaketa, etab.), instalazio elektrikoaren eta abarren muntaketa gainbegiratzea eta kontrolatzea, eta hodian estankotasun-probak eta azken probak egitea, oro har.

3.1.1.3 DOKUMENTAZIOAREN KUDEAKETA

- Kontratistaren komunikazioak jasotzea eta haiek Obra Zuzendaritzari helaraztea.
- Obra-parteari idaztea, datu hauek adierazita:
 - Obrako langileak
 - Lan esanguratsuen hasiera eta amaiera
 - Materialen sarrera
 - Eguraldia
 - Egindako lanak
 - Gorabeherak
- Agindu-liburua, egunean zehar emandako aginduak jasotzen dituen, eta horietako bakoitzaren kopia.
- Exekuzio-plangintza, diagrama partzialak eta asteko zuzenketa banakatuak dituela, desbiderapenak (kausak) eta horien intzidentzia-maila adierazita, eta, aldi berean, beharrezko neurri zuzentzaileak proposatuta.
- Kalitate-kontrolaren erregistroa, honakoak adierazita: laginketak, saiakuntzak, obra-probak eta -egiaztapenak, emaitzen analisia eta abar.
- Obraren egoerari, martxari eta kalitateari buruzko hileko laburpen-txostenak egitea, Partzuergoak lanaren garapenari buruzko etengabeko ezagutza eguneratua izan dezan.
- Gorabeheren erregistroa egitea, artxibo orokorra maneiatzea eta obra-korrespondentzia.
- Kontrol ekonomikoko dokumentuak, honakoak banakatuta: neurketak, baloratutako zerrendak eta onartutako ziurtagiriak, prezioen berrikuspenak eta abar.

3.1.1.4 EKIPAMENDU ETA INSTALAZIOAK KONTROLATU ETA IKUSKATZEA

Arlo honek, funtsean, obran instalatu beharreko materialen kontrola barne hartzen du (instalazioak orokorrean), onetsitako Kalitatea Bermatzeko Programaren arabera, eta, funtsean, honako hau jaso beharko du gutxienez:

- Fabrikazio- eta/edo muntaketa-planoak lantegian jasotzea.
- Materialen kalitatea jasotzea, berrikustea eta erregistratzea.
- Produkzio-erritmoa gainbegiratzea eta obra-programara egokitzea.
- Exekuzio-kontrola fabrikazioan.
- Saiakuntza-programak egitea (testak, karga-probak, errendimendu-kurba, etab.)
- Alderdien kontrola eta elementuen egiaztapena.
- Lantegiko probak gainbegiratzea.
- Harrera-txostenak idaztea.
- Hornitutako ekipa bakoitzari erantsitako dokumentazio teknikoaren dosierra egitea.

3.1.1.5 EKIPO MEKANIKOAK ETA ELEKTRIKOAK

- Eskema unifilar eta trifilarretan akatsak jaso, berrikusi eta zuzentzea.



- Kontratistak aurkeztutako eskema elektrikoen koadernoak berrikustea eta jasotzea.
- Koadro elektrikoak fabrikatzen diren bitartean aldizkako egiaztapenak egitea, baita lantegian horien proba osoak egitea ere.
- Behin betiko eskemak eta saiakuntzen ziurtagiriak berrikustea, koadroa obrara eramatea baimentzeko.

3.1.2 LAGUNTZA TEKNIKOAREN ETA PARTZUERGOAREN ARTEKO ERLAZIOAK

Kontratistak egindako lanaren berri emango dio Obra Zuzendaritzari adjudikaziodunak, nola asteen behingo parteetan hala hilean behingo txostenen mediorik; horietan argi eta garbi adieraziko dira lanaren garapena eta martxa, bai eta lan horiek hobeto gauzatzeko egin daitezkeen proposamenak ere.

Adjudikaziodunak, obra-zuzendaritzarekin bat etorritik, artxibo bat ezarriko du, egiten diren saiakuntza, txosten eta jarduketak guztien emaitzak jasoko dituenak.

Obra Zuzendaritzarekin koordinazio ezin hobea izateko, Zuzendaritzarekiko harremana etengabea izango da, behar adina ohar egingo ditu, egin dakizkiokeen kontsultei erantzunak eman edo kontsultak bere ekimenez egingo ditu.

Kontratistari ez dio agindu zuzenik eman behar, Obra Zuzendaritzak ezartzen dituen egoeretan eta arazoengatik salbu.

Obra Zuzendaritzak eskatuta edo adjudikaziodunak iradokita, lanaren garapenari eta martxari buruzko bilerak egingo dira.

Adjudikaziodunak BBUPen bulego nagusietako erabiltzaileen iradokizunak eta/edo kexak zentralizatu eta kontratistari helaraziko dizkio, suntsiaraz ditzan; obra-zuzendaritzari ere jakinarazita.

Adjudikaziodunak enpresa gisa duen erantzukizuna Obra Zuzendaritzari laguntza teknikoa ematera mugatzen da.

Obra Zuzendaritzak adjudikaziodunaren taldea osatzen duen edozein pertsona desegokia dela ikusten badu, dela bere konpetentzia falta agerian geratzen delako, dela taldearen funtzionamendura egokitzen ez delako, pertsona egokiaz ordeztzea eskatuko du, aldez aurretik idatziz jakinarazita.

Adjudikaziodunak gehienez ere 15 eguneko epean egingo du ordezkapen hori.

Adjudikaziodunaren ekimenez langileak ordezkatzeko badira edo funtzioak edo kopurua aldatzen badira, Obra Zuzendaritzak baimendu beharko du aldez aurretik.

Obra Zuzendaritzak obraren alderdi batzuei buruzko txostena eskatuko du, lanaren martxak hala eskatzen duela uste duen guztietan.

3.2 KONTRATISTAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA TXOSTENAK

Prozesua efizientziaz egiten dela ziurtatzeko, informazioaren berri izan behar da, eta informazioa eguneratua izan; gainera, hura dokumentatu, erregistratu eta artxibatu behar da.

Kontratua ez da amaituko, harik eta eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu eta kontratu-arduradunak onartu arte.

3.2.1 INFORMAZIOA

BBUPek kontratistaren esku jarriko du bere esku dagoen dokumentazio guztia, kontratua erraz garatzeko.

Kontratistak konpromisoa hartzen du kontratua garatzeko BBUPetik lortutako informazioa isilpean gordetzeko, eta, bereziki, erabilitako teknologiarik, iturburu-programei, prozedurei, software industrialari, plano eta eskemei, zehaztapenei, jarraibideei eta abarri dagokienez. Horiek guztiak inolako aldaketarik egin gabe itzuliko zaizkio BBUPi.



3.2.1.1 INFORMAZIOA EGUNERATZEA

Kontratistak informazio hori eguneratu eta osatu beharko du zerbitzua garatu bitartean, eta, horretarako, fitxa tekniko bat bete beharko du kontratu honen xede den aktibo bakoitzeko.

IV. ERANSKINEAN (FITXA TEKNIKO) eredu gisako fitxa bat erantsi da, eta kontratistak hori hobetzeko ahalmena izango du.

Fitxa teknikoak datu-base informatizatu batean bildu beharko dira, eta kontratistak euskarri digitalean (Access) entregatuko dizkio BBUPi, inolako mugarik gabe irakurtzeko, inprimatzeko edo idazteko, bai eta kopia inprimatua ere.

3.2.2 DOKUMENTAZIO PARTIKULARRA

Kontratistak dokumentu hauek entregatu beharko ditu gutxienez:

- Egindako lanen *dossier*a.
- Maiatzaren 9ko 337/2014 Errege Dekretuari jarraikiz eskatzen den dokumentazioa.
- Goi-tentsioko instalazioak martxan jarri direla egiaztatzeko dokumentua

3.2.3 KONTRATISTAK AURKEZTU BEHARREKO TXOSTENAK

Funtsezkoa da BBUPek bere produkzio-jarduerari eusteko egiten den ahalegina ezagutzea eta kuantifikatzea. Horretarako, eta mantentze-lanak etengabe hobetzeko oinarri gisa, beharrezkoa da informazioa izatea, eta, ondorioz, Kontratistak txosten hauek aurkeztu beharko ditu:

3.2.3.1 HILEKO TXOSTENA

Hilero, kontratistak HILEKO TXOSTENA egingo du. Hona hauek izango ditu txostenak:

- Egindako lanen banakapena, egindako jarduketan kopurua eta egindako jarduera bakoitzari langile bakoitzak eskainitako orduak adierazita (besteak beste).
- Egindako lanen ZERRENDA BALORATUA (neurketen eta kontratuaren aurrekontuaren arabera), ziurtagiria emateko oinarria izango dena.
- Kontratu-aurrekontuaren jarraipena

4. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Kontratistaren antolamendu-egiturak behar beste baliabide izango ditu kontratua behar bezala kudeatzeko (giza baliabideak eta baliabide materialak), eta BBUPi lanak egiaztatzen eta emaitzak kontrolatzen laguntzeko.

Kontratistak, gutxienez, bere kontura eduki beharko ditu ondoren zehazten diren giza baliabideak eta baliabide materialak, eta haien kostua bere gain hartuko du kontratuaren guztizko zenbateko ekonomikoaren barruan.

4.1 GIZA BALIABIDEAK

- Ordezkar bat, kontratistaren plantillan sartuta egongo da, eta solaskidea eta lanen arduradun gorena izango da kontratu-zuzendaritzaren aurrean.
- Giza baliabide espezializatuak, kopuru eta kualifikazio nahikoarekin, kontratua kontratu-baldintzetan betetzen dela bermatzeko.

BBUPen instalazioetan lan egiten duten langile guztiek lanok egiteko behar den konpetentzia profesionala eta prestakuntza-maila izango dute, eta kontratistaren erantzukizuna izango da bere ekipoak kontratatutako zerbitzuen xedera egokitzea.

Langile guztiek portaera egokia izan beharko dute, behar bezala unformatuta, txukun eta behar bezala identifikatuta egon behar dute une oro —identifikazio-txartel pertsonala ageriko leku batean eramango dute—.

BBUPek beretzat gordetzen du langileak ordez ditzaten eskatzeko eskubidea, baldin eta langileak ez badatoz bat lehen aipatutako eskakizunekin, edo ez badute agindutako lanerako behar besteko gaitasunik eta



trebetasunik erakusten, kontratu-zuzendaritzaren iritziz.

4.2 BALIABIDE MATERIALAK

- Kontratu honen xede diren lanak behar bezala egiteko beharrezkoak diren erremintak, makinak, eta era guztietako ibilgailuak, norbera eta taldea babesteko ekipamenduak eta beste.
- Bulego eta aldagela propioak edo alokairuan hartutakoak, kontratua betetzeko behar diren giza baliabideen kopuruarekin bat datozenak (BBUPek ez du lokalik emango langileen bulego, aldagela, komun eta abarretarako, ezta erremintak, makinak eta ibilgailuak gordetzeko ere, eta kontratistaren kontura izango dira arrazoi horiengatik sortutako gastu guztiak).

Lanen iraupenaren arabera, oro har eta instalazioan toki nahikorik badago, kontratistak bere kontura, eta kontratu-zuzendaritzaren nahitaezko onespenezko ostean, instalatuko ditu kontratatutako lanak normaltasunez egiteko behar diren etxolak, higiene-zerbitzuak, biltegiak eta bilketak. Kontratista izango da eremu horietan ordena eta garbitasuna mantentzeko arduradun bakarra. Eremu horiek egunero txukundu beharko dituzte lanaldia amaitzean. BBUPek eskubidea izango du, zabarkeriarik antzemanaz gero, eremu horiek hirugarren bat kontratatuta egiteko, eta kontratistaren kontura joango da zerbitzuaren kostua.

Kontratistaren kontura joango dira honako lan hauek eragindako gastuak: lursaila egokitzea; instalazioak ezartzea, kentzea eta lekuz aldatzea; obra osagarriak eraistea, eta okupatutako azalerak egokitu eta garbitzea jatorrizko itxura berreskuratzeko. Lan horiek kontratu-zuzendaritzaren adostasuna lortu beharko dute kontratua bukatutzat jo dadin.

Kontratistaren ibilgailuak BBUPen instalazioetan aparkatzeko, betiere horretarako lekua badago, kontratu-zuzendaritzak baimendu beharko du, eta kontratistako langileak instalazioan dauden bitartean baino ez da baimenduta egongo.

BBUPek ez du bere gain hartzen kontratistaren baliabide materialek izandako lapurreten edo kalteen erantzukizunik. Horrenbestez, egokitze jotzen dituen neurriak hartu beharko ditu lanak amaitu arte ekipoen segurtasuna bermatzeko.

4.2.1 HORNIDURAK

Kontratua behar bezala gauzatzeko behar diren hornidura, erregai, komunikazio eta abar guztiak kontratistaren kontura izango dira.

Oro har eta kontratu-zuzendaritzak berariazko baimenik eman ezean, kontratistak ezin izango ditu erabili BBUPen instalazioetako energia-iturriak (elektrikoa barne). Horrenbestez, bere bitartekoak erabiliz sortuko du (behar den legezko dokumentazioa edukita) kontratatutako lanak exekutzeko behar duen energia elektrikoa.

Ura hartzeko aukera izango du zehazten zaion tokian, eta saneamendu-sareko lotunea ere izango du (beharrezkoa bada); kontratistaren erantzukizuna izango da languneraino edo langunetiko uraren banaketa-eta saneamendu-sarea. Biak eginda geratu behar dira indarreko erregelamenduekin eta segurtasunaren arloko arauekin bat etorri, eta kontratu-zuzendaritzaren onespenezkin.

5. AZPIKONTRATATZEA

Kontratistak administrazio-klausula partikularren agirian zehaztutakoa bete beharko du.

6. KONTRATUAREN KONDIZIO OROKORRAK

Kontratua agiri honetan adierazitako kondizioak betez egingo da, kontratistaren erantzukizunpean.

Kontratistak kontratuaren xede diren jardura guztietan aplikatu beharreko legeria, erregelamenduak eta legezko araudia bete beharko ditu, baita BBUPek ezarritako prozedurak ere.

Jarduteko moduari buruzko edozein zalantza izanez gero, kontratistak kontratu-zuzendaritzara joko du,



informazioa biltzeko.

6.1 KONTRATUAREN HASIERA ETA AMAIERA

Erabat debekatuta dago BBUPeko instalazioetan inolako jarduerarik hastea Kontratuaren Zuzendaritzaren berariazko baimenik gabe.

Kontratuaren indarraldia igarotakoan amaituko da kontratua.

6.2 PROZEDURAK

Kontratistak bere kontura eta bere bitartekoak erabiliz eramango ditu BBUPen instalazioetara kontratuaren xede diren lan guztiak egiteko behar diren langileak eta baliabide materialak.

Kontratista adjudikaziodunak lan guztien plangintza egingo du, eta Aktiboak Kudeatzeko Zuzendariordetzako Plangintza Arloetara bidali beharko da.

Enpresa adjudikaziodunak Kontratuaren Zuzendaritzak gorabeherak, akatsak, matxurak, urgentzia- edo larrialdi-egoerak eta beste jakinarazteko ezarritako prozedurak onartuko ditu.

6.3 LANEN KOORDINAZIOA

Kontratistari dagokio agiri honen xede diren lanak eta zerbitzu osagarriak ematen dituzten enpresenak koordinatzea.

BBUPek kontratatzen dituen enpresek zerbitzuak era sinergikoan eta koordinatuan ematea sustatu eta erraztuko du.

Kontratistaren lanak prozesuko lana edo aldi berean egiten diren «bestelako» lanak oztopatzen dituenean, kontratu-zuzendaritzak horretarako baimena ematen duenean baino ez dira hasiko lanak egiten.

6.4 KONTRATUAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA

Kontratu-zuzendaritza kontratu-arduradun baten esku egongo da (BBUPeko plantillako ingeniaria). Arduradun horrek teknikari arduradun baten laguntza (BBUPeko langilea) eta/edo kanpoko laguntza teknikoa izango du. Langile hori arduratuko da kontratua betetzeko zuzendaritza-, jarraipen- eta kontrol-lanez.

Kontratu-zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen dituen kontrol-neurriak ezarri ahal izango ditu kontratuaren kondizioak behar bezala betetzen direla ziurtatzeko, eta egindako lanen maila teknikoa egiaztatzeko egokitzat jotzen dituen ausazko ikuskapen guztiak egingo ditu.

6.5 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Lanak egiteaz arduratzen diren langileek aplikatu beharreko laneko arriskuen prebentzioko legeak, arauak eta erregelamenduak oso-osorik beteko dituzte une oro.

Kontratistari dagokio laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko prebentzio-jarduerak antolatzea, bere jardura propioak ez ezik, azpikontratutako enpresenak ere bai.

Kontratuari lotutako prebentzio-jardura guztiak ENPRESA-JARDUERAK KOORDINATZEKO BERARIAZKO PROZEDURAK (PE-SST-20) arautuko ditu; eranskin gisa erantsi da.

BBUPeko Prebentzio Zerbitzuek baliozkotu beharko dute prebentzio-jardura guztia.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

6.6 INGURUMENA

Lanak egiteaz arduratzen diren langileek ingurumenari buruz aplikatu beharreko legeria, araudi eta erregelamendu osoa beteko dute une oro.

Kontratistari dagokio ingurumenaren arloko jarduerak antolatzea, bai berarenak, bai azpikontratitzen dituen



enpresenak.

Kontratistak III. ERANSKINEAN (INGURUMENA) zehazten diren BBUPEko Iraunkortasun, Teknologia eta Berrikuntzako Zuzendariordetzaren kondizio guztiak bete beharko ditu, eta, behar izanez gero, horiek betetzen direla erakusten duten ebidentziak eman.

Ingurumenarekin lotutako jardura guztiak BBUPEko Iraunkortasun, Teknologia eta Berrikuntzako Zuzendariordetzak baliozkotu beharko ditu.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

6.6.1 GARBIKETA ETA HONDAKINAK

Enpresa adjudikaziodunak garbiketa-egoera onargarrian mantendu beharko ditu kontratu honen xede diren lanak egiteko erabiltzen dituen instalazioak edo esparruak.

Kontratistaren ardura da bere lanak egin bitartean sortutako hondakin guztiak kudeatzea, eta berariaz debekatuta dago era guztietako hondakinak BBUPen instalazioetan ezabatzea edo biltzea. Hondakinak indarreko legeria aplikagarriaren arabera kudeatuko dira, eta BBUPen eskura egongo dira hondakinak behar bezala kudeatzen direla frogatzen duten egiaztagiria.

Aipatutako betekizunaren bat betetzen ez bada, kontratuaren zuzendariak hirugarren bati emango dio betebehar horiek egiteko ardura. Sortutako gastuak kontratistari deskontatuko zaizkio dagokion ziurtagirian.

6.7 KALITATEA ZIURTATZEA

Lizitatzailleak bere erakundeak kontratuaren kondizioak betetzeko gaitasuna duela ziurtatuko du.

Gaitasun hori ISO 9001 2008 ziurtagiriarekin edo goragoko beste batekin bermatuko da.

Ziurtagiririk izan ezean, BBUPEk egokitzen jotzen dituen kontrolak onartuko ditu lizitatzailleak, eta haien kostua bere gain hartuko du.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

6.8 ZIURTAGIRIAK

Hilero, entregatutako ZERRENDA BALORATUAN oinarritutako ziurtagiria egingo du kontratistak, exekututako unitateei eta egindako lanei dagokienez.

Ziurtagiri partzialak behin-behinekoak baino ez dira izango, eta ez dakarte haien barruan jasotako lanak onartzea.

Amaitu gabeko lanek, partzialki amaitu direnek edo gaizki egindakoek hasierako prezioaren proportzio berean murriztu ahal izango dute.

Alderdiek eztabaidatu eta onartu beharko dituzte prezio kontrajarriak, gauzatu aurretik.

Kontratu-zuzendaritzak alde aurretik onartu ez dituen lan gehigarriak edo aurreikusitakoetan egindako aldaketak ez dira ordainduko.

7. KONTRATUAREN BERARIAZKO KONDIZIOAK

«Ez da aplikagarria».

8. LIZITATZAILAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Aurkeztutako dokumentazio tekniko administrazio-kondizioen agirian zehazten diren dokumentuek osatuko dute.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

Bilbon, 2025eko urtarilaren 9an

Xabier Bikandi Markaida
Horniduraren Mantenimendu Ataleko Arduraduna